




Euskal literatura eta kritikagintza: bide berriak



Ira. 09 - Ira. 10 2026

Kod. L03-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 09 - Ira. 10 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

10 ordu

Webgunea

<https://www.ehu.eus/eu/web/ideolit-literatura-documento-historico/home>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ertz desberdinetatik, XXI. mendean, XX. mendetik jasotako galdera kritikoak birformulatuko dira. Euskal literaturaren kritikan dauden kezka eta erronka berriei eutsiko zaie. Xedea bide berriak sortzea da ikerlari, irakasle eta ikasleentzat, hainbat ikerketa-lerrotan: azken urteotan pil-pilean dagoen autonomiaren auzia; egiletasun berriak eta horiek literatur genero hibridoetan duten eragin zuzena; edota klima-larrialdiak literaturaren zerumugan eta irudimen kolektiboan duen eragina.

Euskal kritikagintzak tradizio teoriko sendoa du, Jesus Maria Lasagabaster adituaren garaian eraiki baitzen. Belaunaldi bat baino gehiago ari dira elkarlanean, eta ikastaroaren helburua genero-, adin- eta pentsamendu-aniztasun hori azaleratzea da, bide kritiko berriak eraikitzeko. Ikastaro honetan hiru belaunaldi elkartuko dira, beraien praktikak, ezagutza eta esperientziak partekatzeko.

Helburuak

Pentsamendu eta eztabaida kritikoa sustatzea euskal kritikagintzan.

Tradizioa eta modernitatearen arteko harremana aztertzea euskal literaturan eta kritikagintzan.

Soka luzeko teoria kritiko(k) galdera berriak erantzuteko erabiltzea gure testuinguruan. Praktika onak partekatu.

Azken teoria kritikoen berri izan eta kritikoki pentsatzea gure testuinguruan.

Lankidetzak



Programa

2026-09-09

09:00 - 09:15 Erregistroa

09:15 - 10:00 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Aurkezpena eta metodologia saioa. Hitz gakoak: Espazioa eta egiletasuna

Nerea Arruti Etxeberria | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

10:00 - 11:00 "Kultur fabrikak Euskal Herrian"

Elizabete Ansa Goikoetxea | Instituto de Estética Universidad Católica de Chile - ZuzendariaHizkuntza: euskara

11:00 - 11:30 Atsedena

11:30 - 12:30 "Hiria irakurri. Euskal narratiba urbanoa aztertzeko gakoak"

Irati Majuelo | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

12:30 - 13:50 "Pentsamendua eta aktibismoa"

ibai Atutxa Ordeñana | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

13:50 - 14:00 Sintesia

2026-09-10

09:00 - 10:00 "Metodologia: Autonomia eta irudimena"

Nerea Arruti Etxeberria | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

10:00 - 11:00 "Autonomia eta politizazio-guneak gaurko euskal literaturan"

Ibon Egaña Etxeberria | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

11:00 - 11:30 Atsedena

11:30 - 12:30 "Distantzia galduaren bila"

Beñat Sarasola Santamaría | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara


12:30 - 13:50 "Autonomia eta azpiegitura: Arantzazutik Adimen Artifizialera"

Asier Amezaga Etxebarria | EHU - IrakasleaHizkuntza: euskara

13:50 - 14:00 Sintesia

14:00 - 14:45 "Musika saioa"Jaquin vahu" : Etxepareren Linguae Vasconum Primitiae-ren 500. urteurrenean, transmisioa eta bide berriak sustatzeko"

Zuzendaritza



Nerea Arruti Etxeberria

EHU

(Zarautz, 1966) Londresko, Goldsmiths Collegen, eta Eskoziako Aberdeeneko unibertsitateetan irakasle titularra izan da. Egun Euskal Herriko Unibertsitatean da irakasle. Mundu akademikoan Julio Cortázarri buruzko doktore tesia izan zen abiapuntu, Londresko King´s Collegen paratua. Ikerketa lanetan artea eta literatura uztartzea izan du helburu. Azken urteotan irudimena, kartografia eta poesia ikertzen aritu da, eta horrekin loturik "Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan" ikerketa egitasmoan eta "Literatura dokumentu historiko gisa" ikerketa taldean partaide da. Berria egunkarian kolaboratzailea da.

Irakasleak



Asier Amezaga Etxebarria


Euskal Herriko Unibertsitatea

Soziologian doktorea (2016) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Soziologia eta Gizarte Lan Saileko irakasle laguntzailea. Zientzian, teknologian eta gizartean eta, bereziki, materialismo berrietan egindako azterlanen ildotik, hainbat arlotako bitartekotza-prozesuez interesatu da, literatura eta gastronomiatik eta kultura- eta teknologia-azpiegituretatik. Aztertzen dituen fenomenoaren izaera sozioomaterial eta emergenteari erantzuteko, izaera performatiboko praktika soziologikoak aztertzen ari da, diseinuaren eta esku-hartzearen bidez ikertuz. Sentsibiltate teoriko eta metodologiko horretatik abiatuta, gaur egun HarilkAI lankidetzaren proiektuaren arduraduna da, gizarte- eta komunikazio-zientzietako adimen artifizialeko plataforma bat prototipatzera bideratua



Elixabete Ansa Goikoetxea

Txileko UCeko Estetika Institutuko zuzendaria eta irakasle elkartua da. Filosofiako doktorea da Indiana Unibertsitatean (2012), Arte Master Indiana Unibertsitatean (2004) eta Ingeles Filologiako lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (2002). 2012an, Txileko Unibertsitateko Arte Teoriaren Sailean doktorego ondoko ikerketa egin zuen, abangoardia artistikoen analisisan espezializatuz, artearen, zinemaren, literaturaren eta 1960ko hamarkadako testuinguru politikoaren arteko diziplina anitzeko loturen bidez. Indiana Unibertsitatean (Bloomington, AEB), Concordia College-n (Moorhead, AEB) eta British Columbia Unibertsitatean (Vancouver, Kanada) irakatsi du. Bere lana nazioarteko biltzarretan aurkeztu du, eta ekitaldi nazional zein nazioarteko antolaketan parte hartu du (Txile, AEB, Kanada, Erresuma Batua).



Nerea Arruti Etxebarria

EHU

(Zarautz, 1966) Londresko, Goldsmiths Collegen, eta Eskoziako Aberdeeneko unibertsitateetan irakasle

titularra izan da. Egun Euskal Herriko Unibertsitatean da irakasle. Mundu akademikoan Julio Cortázarri buruzko doktore tesia izan zen abiapuntu, Londresko King´s Collegen paratua. Ikerketa lanetan artea eta literatura uztartzea izan du helburu. Azken urteotan irudimena, kartografia eta poesia ikertzen aritu da, eta horrekin loturik "Gorputza, egiletasuna eta generoa euskal kultur sorkuntzan" ikerketa egitasmoan eta "Literatura dokumentu historiko gisa" ikerketa taldean partaide da. Berria egunkarian kolaboratzailea da.



Ibai Atutxa Ordeñana

UPV / EHU

(Galdakao, 1984 -) euskal hizkuntzalaria eta pentsalaria da, nabarmena literatura konparatuaren eta kultura ikerketetan egindako lanengatik. Bilbon, New Yorken eta Bartzelonan aritu da teoria kritikoa lantzen. Komunikazioan doktoretza egina du Valentziako Unibertsitatean eta Kultur Ikasketetan New Yorkeko Columbia Unibertsitatean. Gaur egun, EHUko irakaslea da, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailean.



Ibon Egaña Etxeberria


(Urnieta 1981). Euskal Filologian doktorea da eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea EHUUn, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Euskal literatura garaikideaz hainbat lan argitaratu ditu. Pentsako literatur kritikan jardun du 2001etik eta kritika literarioa hartu du aztergai izan gabe denaz. Hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan liburuan (2014). Galtzagorriko zuzendaritza batzordeko kidea da, eta elkartearen hainbat egitasmotan parte hartu du, Klis Klasikoak bildumaren koordinazioan, besteak beste.



Irati Majuelo

Literatura konparatuen doktorea da eta, gaur egun, irakaslea UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. Doktorego tesian euskal eleberrigintza urbanoa ikertu zuen perspektiba feminista

batetik, flâneusearen figura garaikidea baliatuta. Ikerketa hori UPV/EHUko PIF18/083 dirulaguntzari esker egin zuen, eta bitarte horretan, doktorego aurreko egonaldiak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean eta Paris 8 Unibertsitateko LEGS ikerketa gunean. Bere ikerlerroak kritika feminista, genero ikerketak eta ikerketa espazialak dira, betiere euskal literaturan eta kulturean ardatzuta. Literatur kritikari gisa aritu da Berria egunkarian.



Garazi Navas Mundiñano


(Usansolo, 1995) Musikenen lizentziatutako akordeoilari egonezina da. Proiektu ugarietan parte hartu du (Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, adibidez), eta hainbat sari irabazi ditu. Beste arlo batzuetako artistekin elkarlanean aritu ohi da, poesia, antzerkia, dantza edota instalazio artistikoekin, besteak beste. Gaur egun, musika garaikidearen eta musika tradizionalaren arteko loturaren inguruan ikertzen dihardu, beti interpretazioaren aldetik. Izan ere, bere ustez tradizioa eta abangoardia bere instrumentuaren, akordeoiaren bi aurpegiak dira, gutxitan aldi berean agerian jartzen direnak.



Ibon Rodríguez García

Enkarterriko Udal Euskaltegia

Nerbioi ibaiaren ezker aldean sortua, duela jada bi hamarkada hasi zen IbonRG (Sestao, 1978) Bizkaiko eszena independente eta esperimentalean parte hartzen, bai kontzertuak antolatuz (Kafea eta Galletak egitasmoan, besteak beste), bai beste musikarien lanak ekoitziz eta moldatuz (Mursego, Manett, Xabier Montoia eta abar), baita -bereziki- musikari gisa, hainbat proiektutan; Eten taldearekin argitaratu dituen lau diskoekin edota ahotsezko inprobisazioa eta elektronika uztartzen dituen Gargara bikotearen lanekin, proiektu horietan hainbat musika-tresna jo izan dituen arren, IbonRG-ren bakarkako lanean ahotsa da ardatz nagusi eta, gehienetan, bakarra.



Beñat Sarasola Santamaría

MHLI. UPV/EHU

(Donostia, 1984) Filosofian (EHU, 2006) eta Literatur Teorian eta Literatura Konparatuan (UB, 2008) lizentziatua da. "Construcción y Representación de Identidades Culturales" masterra egin zuen (2010) eta "Pensar el arte hoy: estética del arte contemporáneo" graduondokoa Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (2008). Doktoradutza eskuratu zuen Bartzelonako Unibertsitatean "El Segundo Modernismo: la dialéctica de la modernidad y la posmodernidad desde la Escuela de Frankfurt hasta la actualidad" (2014, Doktoradutza Sari Berezia). Readingeko Unibersitateko Samuel Beckett fundazioan eta Columbia Unibertsitatean (NYC) egin ditu ikerketa egonaldiak. Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi ikerketa liburua argitaratu du 2015ean, 70-80. hamarkadako euskal literatur-aldizkariak aztertzen dituena. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean dihardu, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2026-09-09 ARTE

[UIK euskaraz](#)

25,00 EUR

[Donostia Kultura](#)

25,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa